JESUS ATECA ACEBO (1. guztira 2)
INGURUMEN TEKNIKARIA/TECNICO/A DE MEDIO AMBIENTE
Sinaduraren data: 16/07/2026
HASH: 1570c85589e07b4097720f4d30f0290d
Getxo

CARLOS SERGIO ACHOTEGUI (2. guztira 2)
ZINEGOTZIA / CONCEJAL
Sinaduraren data: 16/07/2026
HASH: 381b74b414841c01b3049914a6ff93bc1
Getxo

GETXOKO UDALERRIAN ANIMALIEN ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- XEDEA

GETXOKO udalerrian Animalien Zerbitzua adjudikatzearen xedea da zerbitzu integrala ematea txakurrak katuak eta hudoak batu, zaindu, ostatua eman, kontrolatu, adoptatu, kudeatu eta bideratzeko, solte, kalean, galduta, abandonatuta edo jabeen kontrolik gabe bide publikoan baldin badaude, baita udalari katu-kolonien kudeaketan laguntza ematea ere. Udalerriko zerbitzu teknikoek eta polizia zerbitzuek zehaztutako txakur eta katuei ere emango zaie laguntza.

Katu eta txakurren adopzioa 7.10 kapituluan garatuko da.

2.- EREMUA ETA JARDUERAK

Animalientzako Udal Zerbitzua Getxoko udalerriaren eremu osoan emango da. Lan esparru hauek hartzen ditu barnean:

- Animaliak jasotzea, kudeatzea, adoptatzea eta bideratzea.
- Jasotako animaliei ostatua eta mantenua ematea, eta zaintzea.
- Administrazio kudeaketak eta jendaurreko arreta.
- Aholkularitza teknikoa, txostenak ematea eta udal mailako kontzientziazio kanpainetan parte hartzea.
- Udal eskumenetan sor daitezkeen bestelako gorabeherak.

3.- IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da administrazio kontratua sinatzen den unetik aurrera zenbatuta. Kontratua luzatu ahalko da, urtebeteko bi luzapenen bitartez; kontratuaren iraupen osoa gehienez lau urtekoa izango da.

4.- LIZITAZIOAREN GEHIENEKO ZENBATEKOA

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 31

Kontratuak irauten duen bi urteetarako gehieneko aurrekontua 443.018 euro izango da (BEZaren % 21 barne).

Kontratu honen urteko gehieneko aurrekontua, berriz, 221.509 euro izango da, BEZaren % 21a barne (183.065,29 € gehi BEZaren % 21i dagozkion 38.443,71 €).

Kontratuaren gehieneko aurrekontua zehaztu da, alde batetik, zerbitzu bakoitzaren gehieneko unitateko prezioen arabera, eta bestetik, kontratuak irauten duen urtean bete beharreko zerbitzuen gutxi gorabeherako kopuruaren arabera, kontuan hartuz aurreko hilabeteetan emandako zerbitzuak eta haietako bakoitzaren merkatutako ohiko unitate prezioa.

Udalak ordainduko dituen bete beharreko zerbitzu moten gehieneko unitateko prezioak ondorengoak dira:

1.- Egonaldiko egun bakoitzeko (janaria, garbiketa, medikazioa ohiko tratamenduetan eta iraupen laburretan, aldian behin parasitoak kentzea, jokabide aldaketa eta sozializatzeko lanak, jendaurreko arreta, administrazioko kudeaketak…).

Katuak

Gehieneko prezioa orduko (BEZa kanpo): 15 €
BEZa (% 21a): 3,15 €
Guztira 18,15 €

Txakurrak

Gehieneko prezioa orduko (BEZa kanpo): 17 €
BEZa (% 21a): 3,57 €
Guztira 20,57 €

2.- Eutanasia

Katuak

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 70 €
BEZa (% 21a): 14,7 €
Guztira 84,7 €

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 31

Txakurrak

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 80 €

BEZa (% 21a): 16,8 €

Guztira 96,8 €

3.- Gehienez 40 kilo dituen animalia bat erraustea

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 45 €

BEZa (% 21a): 9,45 €

Guztira 54,45 € .

4.- 40 kilo baino gehiagoko animalia erraustea

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 64 €

BEZa (% 21a): 13,44 €

Guztira 77,44 €

5.- Bilketa egiteko ibilgailua eta langile kualifikatuak irtetea (animaliak jasotzea, animaliarik jaso gabeko irteerak, gorpuak biltzea, tranpa kaiolak jartzea… administrazioko kudeaketak barnean daude):

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 65 €

BEZa (% 21a): 13,65 €

Guztira 78,65 €

6.- Bilketa egiteko ibilgailua eta langile kualifikatuak irtetea 20:00 eta 8:00 bitartean, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan (animaliak jasotzea, animaliarik jaso gabeko irteerak, gorpuak biltzea, tranpa kaiolak jartzea… administrazioko kudeaketak barnean daude):

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 100 €

BEZa (% 21a): 21 €

Guztira 121 €

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 31

. 7.- Albaitaritza azterketa, barneko eta kanpoko parasitoak kentzea eta garbiketa:

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo):	20 €	
BEZa (% 21a):		4,2 €
Guztira		24,2 €

8.- Txertaketa:

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo):	25 €	
BEZa (% 21a):		5,25 €
Guztira		30,25 €

9.- Mikrotxipa jartzea eta administrazioko izapidea egitea:

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo):	40 €	
BEZa (% 21a):		8,4 €
Guztira		48,4 €

10.- Esterilizazioak:

Katu arra

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo):	105 €	
BEZa (% 21a):		22,05 €
Guztira		127,05 €

Katu emea

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo):	185 €	
BEZa (% 21a):		38,85 €
Guztira		223,85 €

Txakur arra

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo):	150 €

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 31

BEZa (% 21a): 31,5 €

Guztira 181,5 €

Txakur emea

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 300 €

BEZa (% 21a): 63 €

Guztira 363 €

11.- Albaitaritza ikuskaritzak:

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 120 €

BEZa (% 21a): 25,2 €

Guztira 145,2 €

12.- Albaitaritzako txosten ofizialak:

Gehieneko prezioa (BEZa kanpo): 180 €

BEZa (% 21a): 37.8 €

Guztira 217,8 €

13.- Zerbitzu bereziak (ekitaldiak…):

Gehieneko prezioa orduko (BEZa kanpo): 65 €

BEZa (% 21a): 13,65 €

Guztira 78,65 €

Ospitaleratzeak, ebakuntzak edo antzeko bestelako jarduketak gertatzen badira, eta haien kostua aldez aurretik zehaztea zaila bada aldagai ugariren ondorioz, bi aldeek adostasunez ezarriko dituzte prezioak, merkatuko prezioak eta albaitarien elkargo ofizialaren erreferentziak oinarri hartuta.

5.- ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA EMATEKO BEHARREZKO EZAUGARRI TEKNIKOAK.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 31

5.1.- Adjudikaziodunak Getxoko udal mugartean solte, kalean, galduta, abandonatuta edo jabeen kontrolik gabe bide publikoan dagoen edozein txakur edo katu jasotzeko ardura izango du. Horrez gain, udalerriko zerbitzu teknikoek eta polizia-zerbitzuek zehaztutako animaliak ere jaso beharko ditu adjudikaziodunak.

Horretarako, ezarritako zerbitzua ongi emateko beharrezko baliabide propioak erabili beharko ditu.

Bidenabar, bide publikoan hilik agertutako animalia guztiak ere jaso beharko ditu.

Halaber, Getxoko herritarrek entregatu nahi dituzten animaliak ere onartuko ditu, udal zerbitzu teknikoek adjudikaziodunari idatziz jakinarazten badio, herritarrek kasuan kasuko tasa ordaindu ondoren. Horrek ez dio udalari inolako kostu gehigarririk sortuko kontratu honetan aurreikusitakoaz gain.

5.2.- Getxoko Udalak eskatuta eta Udaltzaingoarekin batera, enpresa adjudikaziodunak hiru hilero bira bat egingo du herrian (bira bakoitzak sei eguneko iraupena izango du), txakurrak solte egoteak dakarren arazoak herritarrengan eragina izan dezakeen lekuetan edo egoera bereziek hala eskatzen dutenean. Udalak bira horiengatik ez du ezer ordainduko. Bira horien ezaugarriak udaleko teknikariek zehaztuko dituzte.

5.3.- Enpresa adjudikaziodunak soilik udalak, udaleko teknikariek eta poliziak egindako abisuen aurrean erantzungo du, urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan.

Abisua jasotzen den unetik enpresako langileak eskatutako lekuan bertaratu arte gehienez ordu bat igaro ahalko da, baldin eta abisua astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara jasotzen bada.

Abisua 20:00etatik hurrengo eguneko 08:00etara artean jasotzen bada, edo larunbata edo jaieguna baldin bada, orduan erantzuteko denbora gehienez bi ordukoa izango da.

5.4- Erantzundako abisu bakoitzeko lan parte bat egingo da; bertan azalduko dira, gutxienez, abisua zein ordutan jaso den, eskatutako lekura zein ordutan iritsi diren, egindako esku hartzea, inplikatutako animaliaren ezaugarriak eta abisuari emandako konponbide mota.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 31

5.5.- Etxeko animalien edukitze-baldintzen, tratu txarren eta abarren ondorioz jasotako salaketa edo kexen aurrean enpresa adjudikaziodunak egoera benetakoa den in situ egiaztatu beharko du; ez da beharrezkoa izango lan horretan udal langileekin batera joan behar izatea, salbu eta berariaz hala adierazten bada. Egindako bisita bakoitzeko txosten bat emango da, baita amaierako txosten bat ere.

Abisuaren ezaugarriak direla medio udal teknikariek albaitaritza txosten bat egiteko eskatzen badute, orduan abisua jaso eta hurrengo 48 orduetan eman beharko da aipatutako txostena, eta nahitaezkoa izango da zerbitzuari lotutako albaitariak berak animalia aztertzea eta txosten argia eta ebazlea ematea.

5.6.- Hilero lan parte horien laburpena egingo duen txosten bat aurkeztu beharko da. Txosten horretan aterpean izandako mugimendu guztiak agiri bidez justifikatu beharko dira: lagatzeak, berreskuratzeak, eutanasiak, errausketak, etab.

5.7.- Urteko azken hilean urteko txosten bat emango da; txosten horretan gertatutako gorabehera guztiak eta aurreko urteetako datuekin egindako konparazioak bildu beharko dira, besteak beste, sarrerak, irteerak, identifikazioak, larrialdi zerbitzuak, aterpean emandako egonaldi egunak, errausketak, sexuka egindako esterilizazioak, eta abar.

5.8- Entitate adjudikaziodunak animaliak jasotzeko prestatutako ibilgailu homologatu bat izango du, gutxienez. Ibilgailu horrek Getxoko Udaleko identifikazio bat izango du kanpoaldean; horrez gain, zerbitzua ematen duen entitatearen publizitatea ere izan ahalko du. Ibilgailuaren identifikazioa udal identifikazioaren irizpideen araberakoa izan beharko da.

5.9. Entitate adjudikaziodunak eguneko 24 orduetan erabiltzeko moduko harremanetarako telefono zenbaki bat izango du abisuak jasotzeko; ongi funtzionatzen duela bermatu beharko du.

5.10.- Entitate adjudikaziodunak animaliak lokartzeko dardoak jaurtitzeko eskopeta bat izan beharko du, baita berau erabiltzeko baimen ofiziala ere.

5.11.- Horrez gain, zerbitzua emateko beharrezkoa izango da aluminiozko lazo homologatua, mikrotxipen irakurgailua, lepokoak, uhalak eta erabilera profesionalerako

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 31

muturrekoak, hozkadetatik babesteko trajeak eta katuak harrapatzeko gailuak izatea, baita zerbitzua ongi emateko beharrezkoak izan daitezkeen beste gailu batzuk ere.

5.12- Udalerrian zerbitzua ematen duten langileak behar bezala jantzita egongo dira.

5.13.- Horrez gain, plegu honen xede diren txakur eta katuei ostatu ematea adjudikaziodunaren betebeharra izango da udalak edo aginte eskumendunak hala zehazten badu edo animalia arriskutsuak direnean eta indarrean dagoen legedia ez betetzeagatik konfiskatu egin behar direnean.

5.14.- Animalien jasotze, garraio eta mantentze lanetan arlo hau arautzen duten lege eta araudiek ezarritako berme guztiak zainduko dira. Berdin txakurren eta katuen adopzioan.

6.- ETXEKO ANIMALIAK ZAINDU, KONTROLATU ETA HAIEI OSTATUA EMATEKO BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK.

6.1.- Enpresa adjudikazioduna jasotako animaliak zaindu, eta haiei ostatua eta mantenua emateaz arduratuko da, betiere txakur eta katu espezieak hartzeko gune zoologikoei buruzko araudiek ezarritako betekizun zehatzekin bat etorriz. Animaliak hartzeko eskainitako instalazioek legez gune zoologiko gisa aitortuta egon beharko dute, eta indarrean dagoen legedian ezarritakoari egokituta.

Gune zoologikoko baimena duen aterpea enpresa adjudikaziodunarena izan beharko da, alokatua edo legez onartutako beste edozein araubidetan egon beharko da. Animalia guztiak aterpe bakarrean egon beharko dira, eta zerbitzu hau emateko ezingo dira zenbait aterpe aurkeztu.

Aterpeak gune bereiziak izango ditu, animalia espezieen arabera. Eskaintzetan, Getxon jasotzen diren txakur eta katuentzako txakurtegien banaketa jasotzen duten planoak atxiki beharko dira; Getxon jasotako animalientzat gordeko diren txakurtegien

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 31

kopurua eta azalerak adierazi beharko dira, edo atseden lekuak, baita inguruko aisialdi eremuetarako azalerak ere.

Animaliei ostatu emateko eskainitako lekuek indarrean dauden lege xedapenak bete beharko dituzte.

6,2.- Enpresa adjudikaziodunak albaitaria izango du kontratuko instalazioetan; albaitariak Bizkaiko Foru Aldundiaren gaikuntza izango du osasun ziurtagiri ofizialak emateko, eta pertsonaren izena eta curriculuma agertu beharko dira; bertan zehaztuko dira pertsonaren lanposturako gaitasuna eta esperientzia. Bidenabar, Albaitarien Elkargo Ofizialean inskribatuta egon beharko da.

Albaitari horrek aterpera iritsitako animaliak diagnostikatu eta artatzeko gai izan beharko du eta, hala badagokio, baita eutanasiak egiteko ere, osasun egoera desegokian dauden animalien kasuan edo kontratuaren ardura duten udal teknikariek baimendutako edo agindutako kasuetan. Animaliei zuzendutako zerbitzua eta arreta eraginkorra izan dadin, albaitariak bere kokapen finkoa aterpean bertan izan beharko du, eta animalien osasun kontrolaren, eta esterilizazio, eutanasia eta errausketa lanen arduraduna izango da.

6.3.- Enpresa adjudikaziodunak, ahal den guztietan, animalia jabeari itzuli ahal izango dio udalerrian jaso ondoren; ez da beharrezkoa izango aterpera eramatea, betiere inprimakiak eta aterpean hartutako txakurrentzako izapide berberak betetzen badira.

6.4.- Animaliak hartzeko erabiliko diren instalazioak egunero garbitu beharko dira; itxura garbia eta zaindua izan beharko dute beti.

6.5.- Herritarrek aterpera joateko aukera izan dezaten, gutxienez lanegun ofizialetan zabalik egon beharko da, astelehenetik ostiralera, goizean 10:00etatik 13:30era eta arratsaldez 16:00etatik 18:00etara. Larunbatetan, berriz, 10:00etatik 13:30era.

6.6.- Aterpean hartutako animaliak berraztertu egin beharko dira, eta, beharrezkoa bada, sartu eta berehala parasitoak kendu, desinfektatu eta garbitzeko lanak egin beharko zaizkie, lehenagotik bertan dauden gainerako animaliak ez kutsatzeko.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 31

6.7.- Zerbitzua emango duen entitateak aterpera iritsitako animalien identifikazioak egiaztatuko ditu, eta berehala jabearekin harremanetan jarriko da, telefono zein burofax bidez, edo beste edozein bideren bitartez, jabea kezkatzea eta beharrezkoak ez diren gastuak egitea saihesteko; hala, animaliak identifikatzea zein baliagarria den erakutsiko da.

6.8.- Entitate adjudikaziodunak aterpean zein bertan dauden animaliengan baldintza higieniko eta osasun baldintza aproposak daudela bermatuko du.

6.9.- Entitate adjudikazioduna aterpean dauden animaliak egunero elikatzeaz eta elikadura aproposa emateaz arduratuko da.

6.10.- Entitate adjudikaziodunak aterpeko sarrera eta irteeren kontrol zorrotza egingo du, eta hilero txosten bat igorriko du udalera; bertan zehaztuko dira, gutxienez, sartutako animalia mota, sarrera eguna eta ordua, osasun egoera sarrera unean, mikrotxip zenbakia edo mikrotxipik eza, argazkia, irteera eguna eta ordua, irteeraren arrazoia, osasun egoera irteera unean eta, hala badagokio, ordaindutako tasak.

Dokumentu guztiak dagokionak sinatu beharko ditu, eta pertsona horren izaera egiaztatua dagokion dokumentuan jaso beharko da.

6.11.- Indarrean dagoen legediaren edo udal irizpideen arabera identifikatuta egon behar duten animaliak identifikazioa jarrita aterako dira aterpetik; jabeak edo aterpetik aterako duen pertsonak horrek ekar dezakeen kostua ordaindu beharko du. Ondorio horietarako mikrotxipa jartzeko udal tasa aplikatu beharko da.

6.12.- Animalia bere jabeak erreklamatua izan dadin finkatutako legezko epea amaituta, hura adoptatzen saiatuko da. Adoptatzaileak ordaindu beharreko gauza bakarra, adopzio kontzeptuari dagokion tasa izango da.

Animalia ez bada erreklamatu edo adoptatu, udala haren jabe egin eta bere izenean erregistratuko du. Hilabete igaro ostean, enpresa adjudikaziodunak txosten bat egingo du, eta bertan animalia bakoitzarekin egindako jarduera guztiak aipatuko dira, adopzioan eman ahal dadin, eta hori orain arte egin ahal ez izateko egon daitezkeen arrazoiak identifikatuko dira.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 31

Animaliek aterpean egoten jarraituko dute harik eta udal zerbitzu teknikoek hala erabakitzen duten arte.

6.13.- Maskota bat adoptatzerakoan, enpresa adjudikaziodunak agiri bat entregatuko dio jabe berriari; bertan agertuko da jabeak lege betebeharrei buruzko informazioa jaso duela eta indarrean dagoen legedia betetzeko konpromisoa agertuko da.

6.14.- Berreskuratutako animalia ororen kasuan, identitatea egiaztatu ondoren jabeari itzuli behar bazaio, jabeari berari edo aldez aurretik baimen idatzia emanez jabeak berak adierazitako pertsonari baino ezingo zaie eman.

6.15.- Emandako txakur eta katu orok dagokion mikrotxipa eramango du, eta esterilizatuta egongo da, salbu eta zenbait arrazoi direla medio udal zerbitzuek aurkakoa gomendatzen duten kasuetan. Enpresa adjudikaziodunak adopzioan emandako mikrotxipdun katu esterilizatuen errolda prestatuko du.

6.16.- Entitate adjudikazioduna zerbitzuak betetzeagatiko udaleko tasen kobrantzaz arduratuko da, eta dagokion ordainagiria egingo du sortutako kontzeptuengatik.

6.17.- Hiltzen diren edo sakrifikatzen dituzten animaliak edota bide publikotik hilik jasotako animaliak indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko dira; hiru hilean behin animalia hondakinak kudeatzeko enpresak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

6.18.- Entitate adjudikaziodunak titulartasun alta, baja edo aldaketei buruzko informazioa igorriko dio animalien identifikazioaren mantentze lanen ardura duen erakundeari.

6.19.- Entitate adjudikaziodunak legez baimendutako erraustegi propioa edo enpresa pribatu batekin itundutako erraustegia eduki beharko du, indarrean dagoen araudiaren arabera animaliak kudeatzeko edo errausteko.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 31

6.20.- Entitate adjudikaziodunak bere instalazioetan DDD tratamendua egin izana egiaztatzeko ziurtagiria izan beharko du.

6.21.- Tasen bilketa eta haien justifikazioa.- Adjudikaziodunak tasen bilketa egin beharko du Gizarte Ongizate eta Osasun Publikoko Gizarte Zerbitzugintzagatiko Tasaren Zerga Ordenantza arautzailearekin bat etorriz.

Enpresa adjudikaziodunak, udal arduradunak aldez aurretik baimena eman ondoren, bildutako zenbatekoak hiru hilean behin aurkeztu beharko ditu, baita emandako zerbitzuen xehetasunak ere, subjektu pasiboak adieraziz, Gizarte Ongizate eta Osasun Publikoko Gizarte Zerbitzugintzagatiko Tasaren Zerga Ordenantza arautzailearekin bat etorriz.

Bildutako zenbatekoak hiru hilean behin entregatu beharko dira zuzenean udal bilketa arloan, edo horretarako udalak adierazitako entitate eta kontu korrontean.

7.- BESTE BETEKIZUN TEKNIKO BATZUK.

7.1.- Animalientzako Udal Zerbitzua ematean “bezeroari orientatuta” printzipioa baliatu beharko da. Hala, egingo diren jarduera guztietan zerbitzua behar duten herritar guztien beharrizanak eta asmoak betetzea zaindu behar da. Horren haritik, edukaziozko tratua, erantzun azkarra eta informazio garden eta argia bereziki zaindu behar dira. Jendaurreko arretari dagokion oro euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da.

7.2.- Enpresa adjudikaziodunak baliabide teknikoak, informatikoak, ofimatikoak eta telekomunikazioko baliabideak izango ditu herritarren beharrizanak behar dituzten administrazio kudeaketa eta aholkularitza lanak egiteko.

7.3.- Enpresa adjudikaziodunak Animalientzako Udal Zerbitzua emateko kualifikatutako langileak izango ditu kontratatuta. Horretarako, zerbitzu honen lanak egiteko jarriko dituzten pertsonen curriculumak aurkeztuko dira.

Horrez gain, animaliekin zuzeneko harremana daukan langile orok legez animalia arriskutsuak izateko administrazio lizentzia izan beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak lan hauek egiteko aurkeztuko dituen langileen artean administrazio lanak betetzen dituen pertsona bat agertu behar da; txostenak prestatzeko

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 31

beharrezko dokumentazio guztia osatzeaz arduratuko da, eta zerbitzutik eratorritako administrazio kudeaketak, telefono eta fax bidezko arreta, informatika atala, bizilagunekin harremanak eta abar landuko ditu.

7.4.- Webgune bat sortzea (egina ez badago) udalerrian jasotako txakurrak eta katuak, berreskura daitezkeenak, bistaratzeko. Halaber, webgune bera erabiliko da udalerriko herritarrek eta beste pertsona batzuek animaliak adopta ditzaten sustatzeko. Webgunea eguneratu beharko da zentroan izandako animalien mugimenduari dagokionez, eta identifikazio datuekin batera, koloretan argazki bat sartuko da, animalien oinarrizko datuak (adina, arraza, osasun-egoera, etab.) emateaz gain. Webgune horrek Getxon jasotako txakur eta katuentzat bakarrik gordetako atal bat izan beharko du, gainerako udalerrietan jasotako animaliengandik bereizita. Udalak, bestalde, iragarki-banda bat jarriko du bere webgunean eta, haren bitartez, Getxoko txakur eta katuentzat bakarrik den atal horretan sartu ahalko da. Enpresak udalari iragarki-banda horren irudia eman beharko dio udaleko arduradunek jar dezaten.

7.5.- Enpresa adjudikaziodunak, bertako langileekin eta udalak eskatzen dionean, txakurren jabeentzako edo udaltzainentzako doako bi prestakuntza jardunaldi eskainiko ditu urtean. Udalak jardunaldi horiengatik ez du ezer ordainduko.

7.6.- Enpresa adjudikaziodunak, txartel-makina izango du udal tasak kobratzeko txakurra aterpean edo udalerrian entregatzen denerako.

7.7.- Enpresa adjudikaziodunak hitzaldi eta mintegietan parte hartuko du, baita aldizkako bileretan ere (hilekoak edo ez), Ingurumen Arloko teknikariekin batera. Horrez gain, udalak beharrezkoa izan dezakeen aholkularitza teknikoa emango du. Ondorio horietarako, koordinatzaile bat izendatuko da, eta koordinazio batzar egokiak egingo dira.

7.8.- Gaur egungo txakur aterpean dauden animaliak kontratua sinatu eta gehienez hurrengo hamar eguneko epean bere instalazioetara eramateko konpromisoa hartu beharko du enpresa adjudikaziodunak.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 31

7.9.- Aldez aurretik abisatu gabe aterpean bertaratzen diren udal langileei instalazioetara sartzen utziko die enpresa adjudikaziodunak, instalazioak eta instalazioen ezaugarriak in situ egiaztatu eta aztertzeko.

7.10.- Zerbitzu honen helburuetako bat da galdutako, abandonatutako eta abarreko animalia guztiek, udal instalazioetan hartzen badira, jabea izatea lor dezatela. Bestalde, mundu honetan lanean diharduten enpresek ezin hobeki ezagutzen dituzte adopzioak sustatzeko sistemak. Horregatik, interesgarria da enpresa lizitatzaileek hori Getxo udalerrian sustatzeko plana proposa dezaten eta, modu horretan, udal-zerbitzuan ostatatuta dauden animalia gehienak adopta daitezen.

Eskaintzarekin batera agiri bat aurkeztuko da, eta hura enpresa lizitatzaileek txakur nahiz katuen adopzioak sustatzea xede duten jarduketei buruzkoa izango da (jarduera horiek bere kasa edo udalarekin nahiz animaliak babesteko elkarteekin… adostuta egin ahalko dira), zerbitzuak jasotakoak. Jarduketa horiek guztiek ez diote kosturik ekarriko udalerriari; adjudikaziodun enpresak ordainduko ditu.

. Plan horren barruan jasoko dira adopzioak sustatzeko elkarteekin edo antzekoekin sinatutako akordioak, baita hedapen ekintzak, emate-guneak, kontzientzia sortzeko kanpainak eta lizitatzaileen ustez lortu nahi diren helburuak eskuratzeko bestelako jarduerak ere. Zehatz-mehatz deskribatu eta zehaztu beharko dira, jarduketa bakoitzaren (adopzioan emandako txakur eta katuak) eraginkortasun maila ulertu eta ikusteko. Aurkezten diren jarduketetan, enpresa lizitatzaileak beraietan esperientzia baldin badauka, horiek egin dituelako, dokumentazioa aurkeztu beharko da, lortutako adopzio kopuruarekin. Berritzaileak diren ekintzetan, edo lortu ahal den adopzio kopurua jakiteko helburuz kontrastatzeko zailak diren ekintzetan, enpresa lizitatzaileak ahalik eta hoberen arrazoitu beharko du jarduketa horren eragina adopzioa lortzeko orduan.

Enpresarentzat kostu bat dakarten jarduketetan, jarduketa bakoitzaren kostua, gutxi gorabehera, adierazi beharko da.

7.11.- Baldintza plegu honetan eskatutako txosten guztiak eta nahitaez aurkeztu beharrekoak, udalak ondoren aldatu ahalko ditu.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 31

7.12.- Enpresa lizitatzaileak kontratua burutzearen ondoriozko ekintzak babesteko behar besteko erantzukizun zibileko poliza sinatuta izan beharko du.

7.13. – Kanporako diren dibulgazio dokumentu guztiak elebidunak izan behar dira eta hizkuntza modu ez sexistan erabili behar dute.

8.- GUTXIENEKO KAUDIMEN ETA GAITASUN BETEKIZUNAK ETA BITARTEKOAK ESLEITZEA

Enpresek, kontratu honetarako, gutxieneko kaudimen baldintza hauek bete beharko dituzte:

Ekonomia- eta finantza-kaudimena:

- Lizitatzaileak negozioen urteko bolumen bat egiaztatu beharko du, eta amaitutako azken hiru urtetako negozio-bolumen handieneko urteak **183.065,29 eurokoa izan beharko du gutxienez (BEZa kanpo).** Merkataritza Erregistroan aurkeztutako eta onetsitako urteko kontuen bidez egiaztatuko da lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; halakorik ezean, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoen bidez egingo da. Merkataritza erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek beren negozioen urteko bolumena egiaztatuko dute urteko kontuen zein inbentarioen liburuen bidez, merkataritza-erregistroak legeztatuta.

Kaudimen teknikoa eta profesionala:

- Lizitatzaileek antzeko lanetan esperientzia dutela egiaztatu beharko dute, azkeneko hiru urteotan egindakoak alor publikoan zein pribatuan. Esperientzia hori organo eskudunak egindako ziurtagirien bidez egiaztatuko da, zerbitzuen hartzailea erakunde publiko bat izan denean; eta enpresaburuaren adierazpen edo ziurtagiri baten bidez, zerbitzuen hartzailea erakunde pribatu bat izan denean. Ziurtagiri horietan, enpresa lizitatzaileak **hiru urte horietako egikaritze gehieneko urtean 183.065,29**

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 31

euroko (BEZa kanpo) zerbitzuak egin dituela egiaztatu beharko da. Zerbitzuak plegu honen xede den zerbitzuaren berdinak edo antzekoak izan beharko dira. Zerbitzuek izaera bera edo antzekoa dutela ulertzen da CPV bakoitzaren lehenengo digituak berdinak direnean.

Gutxieneko kaudimen hori egiaztatzen ez duten lizitatzaileak kanpo geratuko dira.

Bestalde, bitarteko hauek kontratuari esleitu behar zaizkio, eta honela justifikatuko dira:

+Enpresak zerbitzua betetzeari atxikitako instalazioek gune zoologikoko erregistro baten ziurtagiria izan dezatela (gune zoologikoaren baimena enpresa lizitatzailearen edo haren legezko ordezkariaren izenean egongo da), eta dagokion ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko da. Txakur eta katu guztiak instalazio berean egongo dira, eta zerbitzua betetzeko zenbait zentro aurkezteko aukerarik ez da izango.

+ Enpresak legez baimendutako erraustegi propio bat izan dezala, edo baimendutako erakunde pribatu batekin akordio bat izan dezala animaliak errausteko edo kudeatzeko indarrean dagoen legedia betez; hori guztia dagozkien agiriak aurkeztuz egiaztatuko da.

+ Enpresak kontratu honen esku albaitari bat jarri dezala baldintza plegu honetan finkatutako baldintzetan; albaitarien elkargo ofizialean inskribatuta izango da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak gaituta; horretarako, unibertsitateko titulazioa eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Gainera, nahitaezko baldintza izango da enpresak animaliak jasotzen aritzen diren langileak edukitzea; azken horiek, alde batetik, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko administrazio lizentzia izan beharko dute, eta bestetik, arma anestesikoak erabiltzeko lizentzia; hala, lizentzia horien kopiak aurkeztu beharko dituzte.

Dokumentazio hori frogatzen ez duten lizitatzaileak baztertu egingo dira.

9.- ENTITATE ADJUDIKAZIODUNAK ESKAINTZAN ETXEKO ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA EMATEKO AURKEZTU BEHARREKO GAINERAKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 31

1.- GETXOKO KONTRATURA BIDERATUTAKO BALIABIDE MATERIALAK

* Animalientzako aterpeak

Planoak, eskalan, txakurtegien edo Getxoko animaliak bilduko diren beste instalazioen neurriekin.

* Ibilgailuak.

* Harrera lekua.

* Albaitarien kontsultategia.

* Animaliak gutxiagotzeko eta identifikatzeko baliabideak.

* Garbitzeko, higienizatzeko eta desinfektatzeko baliabideak.

D. D. D. enpresarekin kontratua.

Tratamenduen ziurtagiria.

* Bestelako baliabide materialak.

2.- KONTRATURA BIDERATUTAKO GIZA BALIABIDEAK. GETXOKOAK

* Zuzendari teknikoa. Betebeharrak, curriculuma eta tituluak.

* Getxorako zerbitzuaren arduraduna.- Funtzioak, curriculuma eta tituluak

* Albaitaria. Funtzioak, curriculuma eta tituluak.

* Administrazio-funtzioak dituen pertsona - Funtzioak, curriculuma eta tituluak.

* Txakur zaintzailea. Betebeharrak, curriculuma eta tituluak.

* Katu zaintzailea. Funtzioak, curriculuma eta tituluak.

* Bestelakoak

Eskaintzan aurkeztu beharko da baliabide horiek kontratuari atxikitzen direlako agiria.

10.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua arrazoi hauengatik aldatu ahalko da:

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 31

- Zerbitzuaren beharrak edo sektoreko araudian aldaketak direla bide, prezio unitario berriak ezartzea.
- Animalien identifikazio sistema berria ezartzea.
- Urtean kudeatu diren animalia-kopuruak azken bi zerbitzu-urteetan emandako zerbitzu-kopurua gainditzea.

Dena dela, aldaketa horien zenbatekoaren mugak ezin du urteko gehieneko aurrekontuaren % 20 gainditu.

11.- ORDAINTZEKO SISTEMA

Kontratuaren xede diren zerbitzuak hilero ordainduko dira, faktura aurkeztu eta udalak adostasuna agertu ondoren.

Fakturari txosten bat erantsiko zaio. Txosten horretan txakurren aterpearen mugimenduak eta animaliak biltzeko ekintzak ageriko dira.

Hiru hilean behin eta dagokion hilaren fakturarekin batera, udalarekin hiruhileko horretako tasak likidatu izanaren frogagiria erantsiko da. Udal zerbitzuko langileen zerrenda aurkeztu beharko da ere, alderdi horretan izandako aldaketak ikusteko asmoz. Zerbitzuaren zuzendaritzak langileen TC agiriak ere eskatu ahal izango ditu.

12.- DATUEN BABESA ETA LANBIDE-SEKRETUA. LANAREN JABETZA

12.1.- Konfidentzialtasuna

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartuko du sekretupean gordetzeko Getxoko Udalak edo kontratatutako zerbitzuaren hartzaile diren pertsona edo enpresek emandako datu eta informazio guztiak, hemen araututako zerbitzua emateari buruzkoak badira. Bereziki Informazio Konfidentzialtzat joko da kontrataturiko zerbitzuak (Zerbitzuak) gauzatzearen ondoriozko *know how* edo egiten jakitea, eta adjudikaziodunak isilpean eta gordeta mantendu beharko du, kontratukoa ez den ezein pertsona fisikori edo juridikori jakinarazi gabe, osorik edo zati batez.

12.2.- Datuak babestea

12.2.1 Araudia

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 31

Kontratatutako zerbitzuaren funtzionamenduak badakar datu pertsonal babestuak tratatzea Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora ekarri dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, eta Lege horren 25. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuek osorik bete beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez (DBEO), baita araudi osagarria ere. Baldin eta, kontratazioa dela-eta, kontratistak datu pertsonalak erabili behar baditu eta datuon tratamenduaren erantzulea erakunde-kontratatzailea bada, kontratista izango da tratamenduaren arduraduna. Kasu horretan, datu horietarako sarbidea ez da hartuko datuen komunikaziotzat, baldin eta DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada. Nolanahi ere, horren aurreikuspenak idatziz jaso beharko dira.

12.2.2. Datu pertsonalen tratamendua

Baldintza-agiri honen xedea betetzeko, Getxoko Udalaren ardurapeko datu pertsonalak tratatu behar ditu adjudikaziodunak klausula honetan zehazturiko moduan, administrazio-klausula berezien pleguetan eta “Datu pertsonalen tratamendua” deritzon eranskinean zehaztutakoarekin osatuz, hain zuzen ere. Horrek berekin dakar adjudikaziodunak tratamenduaren arduradun jardutea eta, beraz, unean uneko indarreko araudia bete behar du nahitaez, betiere, datu pertsonalak behar bezala tratatuz eta babestuz.

Hortaz, Getxoko Udalari dagokio tratamenduaren erantzulearen ardura bere gain hartzea. Tratamenduaren arduradunaren erantzukizuna, berriz, adjudikaziodunari. Adjudikaziodunak datuak beste helburu baterako erabiliz gero, edo kontratuaren

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 31

xedapenak bete gabe jakinarazi ala erabiltzen baditu, tratamenduaren arduraduntzat joko da baita ere, eta pertsonalki izan ditzakeen arau-hausteen aurrean erantzungo du.

“Datu pertsonalen tratamendua” eranskinean, zehazki azaltzen dira babestu beharreko datu pertsonalak, baita egin beharreko tratamendua eta adjudikaziodunak abiarazi beharreko neurriak ere. Baldin eta, kontratua betearaztearen ondorioz, inoiz eranskinean ezarritakoa aldatu beharra badago, zentzuz egingo du horretarako eskaera eta eskaturiko aldaketak aipatuko ditu. Getxoko Udala eskatutakoarekin ados badago, “Datu pertsonalen tratamendua” izeneko eranskin eguneratua emango du, halako moldez non tratamenduaren egiazko xehetasunak bilduko baititu beti.

13.- ZIGORRAK ETA ZEHAPENAK.

.

ARAU-HAUSTEAK			
ARAU-HAUSTEEN TAULA	ARINAK	ASTUNAK	OSO ASTUNAK
1.- **Atzerapen txikiak izatea:** Justifikatu gabe berandu iristea bilketa-gunera udaltzaingoaren edo herritarren jakinarazpenaren ostean	X		
2.- Uniformea ez eramatea: Ez janztea arauzko jantziak edo akreditazioa ez izatea ikusgarri zerbitzua ematen den bitartean	X		
3. Erregistroak akatsak izatea: Atzerapenak izatea eguneroko parteak entregatzerakoan edo zaindu diren animalien datu-basea eguneratzerakoan.	X		
4.- Epe kritikoak ez betetzea: Ez bertaratzea premiazko jakinarazpenetara (adibidez, artatzea zaurituta dagoen edo harrapatu duten animalia bat edo bide-segurtasunerako arriskutsua izan daitekeen bat) ezarri den gehieneko denboraren barruan (normalean 1-2 ordu).		X	
5.- Ibilgailu desegokia izatea: Beharrezko klimatizazio-, aireztapen- edo desinfekzio-neurriak betetzen ez dituen garraio-ibilgailuak erabiltzea.		X	

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 31

6.- Langile kualifikaturik ez izatea: Zerbitzua ematea eskatzen dena baino langile gutxiagorekin edo animalien zaintzan eta ongizatean nahikoa prestakuntza ez duten langileekin.		X	
7.- Zabarkeriaz jardutea animaliak identifikatzerakoan: Ez irakurtzea berehala jaso den animaliaren mikrotxipa haren jabea aurkitu ahal izateko.		X	
8.- Tratu txarrak edo osasunari dagokionez zabarkeriaz jardutea: Ez ematea berehalako albaitaritza-arreta zaurituta edo gaixorik dauden animaliei, edo osasungaitzak diren baldintzetan mantentzea Animaliak Babesteko Zentroko (ABZ) instalazioak.			X
9.- Baimendu ez den sakrifizioa egitea: Animalia bati eutanasia egitea Animalien ongizateari buruzko Legeak baimentzen dituen kasu kliniko eta legal zorrotzetatik kanpo. Lege horrek argi debekatzen du animaliak ekonomia- edo espazio-arrazoiengatik sakrifikatzea. - **.**			X
10.- Zerbitzua emateari uko egitea: Animalia bat jasotzeari behin eta berriz eta arrazoirik gabe uko egitea, tokiko administrazioak hala eskatu ondoren.			X
11.- Ilegalki lagatzea edo azpikontratatzea: Zerbitzua hirugarren bati lagatzea, Udalak hori egitea baimendu ez duenean.			X

ZEHAPENAK:

Arau-hauste arinak, 100,00 eta 1.000,00 euro bitartean.

Arau-hauste astunak, 1.000,00 eta 3.000,00 euro bitartean.

Arau-hauste oso astunak, 3.000,00 eta 30.000,00 euro bitartean.

Zehapenen zenbatekoa enpresa adjudikaziodunari hilean zerbitzua eskaintzeagatik dagokion zenbatekoa ordaintzean kenduko zaio.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 31

14.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honen barnean dauden era guztietako dibulgaziozko materialak prestatu eta sortzeko orduan, Getxoko Udaleko korporazioaren identitateko eskuliburuak errespetatu beharko ditu.

Adjudikaziodunak, kontratua gauzatzen den bitartean, datu-babesari buruzko estatuko nahiz Europar Batasuneko araudiak bete beharko ditu, zehazki, jarraian adierazitako arauak edo horiek ordezkatzen dituztenak:

14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, Premiazko neurriak ezartzen dituena segurtasun publikoagatik, administrazio digitalaren, sektore publikoaren kontratazioaren nahiz telekomunikazioen alorretan.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).

Betebehar hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia da; izan ere, funtsezko kontratu-betebeharra da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutakoaren arabera.

.

Paperaren eta kopia inprimatuen erabilera murriztuko da eta, ahal dela, euskarri elektronikoak erabiliko dira jardueraren izaerak ahalbidetzen duenean. Euskarri elektronikoan egin ezin diren barneko eta kanpoko parte-hartze jarduera guztietan, % 100 kontsumitu ondoren birziklatutako eta klororik gabeko papera (TCF) erabiliko da. Azaleztatutako materialaren kasuan, saihestu egingo da berrerabilgarriak edo birziklagarriak ez diren osagaiak egotea.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 31

Antolatzen diren bileretan edo aurkezpenetan erabiliko diren bitartekoak eta baliabideak bat etorriko dira berotegi-efektuko gasen isuriak arintzeko politikekin. Horrek esan nahi du, adibidez, ez dela erabilera bakarreko elementurik banatuko lan-mahaietan, sortutako hondakinak (halakorik balego) gaika bilduko direla eta abar.
Interpretazioko material, material didaktiko, argitalpen, txosten guztiak eta kontratu honen barneko paperezko beste edozein elementu, birziklatutako paperarekin egin beharko dira.

Enpresek hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dituzte. Gainera, egiten dituzten materialek eta jarduerek ez dute estereotipo sexistarik izango eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dituzte.
Kontratua egikaritzeagatik erakunde lizitatzaileak aurkeztu beharko dituen txostenak eta memoriak egiterakoan ondokoa jaso beharko da: kontratua egikarituko duten langileen eta erabiltzaile edo onuradunen inguruko datu estatistiko guztiak, sexuaren eta adinaren arabera…

Egikaritze-baldintza berezi horietako edozein (datuen babesari buruzkoa izan ezik) ez betetzea kontratu prezioaren % 10eko zenbatekoarekin zehatuko da.

15.- BALORAZIO IRIZPIDEAK.

IRIZPIDE AUTOMATIKOAK, **gehienez 80 puntu**

Apartatu honetan sartuko dira:

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

Gehienez 73 puntu.

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa, pleguan azaldutako gehieneko aleko prezioen beherapenari dagokiona, honela banakatuko da:

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 31

1.- Egonaldiko egun bakoitzeko (janaria, garbiketa, medikazioa ohiko tratamenduetan eta iraupen laburretan, aldian behin parasitoak kentzea, jokabide aldaketa eta sozializatzeko lanak, jendaurreko arreta, administrazioko kudeaketak…).

Katuak----------16 puntu

Txakurrak ----------33 puntu.

2.- Eutanasia

Katuak----------0,5 puntu

Txakurrak ----------0.5 puntu.

3.- Gehienez 40 kilo dituen animalia bat erraustea-------0.65 puntu

4.- 40 kilo baino gehiago dituen animalia erraustea-------0.65 puntu

5.- Bilketa egiteko ibilgailua eta langile kualifikatuak irtetea (animaliak jasotzea, animaliarik jaso gabeko irteerak, gorpuak biltzea, tranpa kaiolak jartzea … administrazioko kudeaketak barnean daude): ----------7,5 puntu

6.-.- Bilketa egiteko ibilgailua eta langile kualifikatuak irtetea (animaliak jasotzea, animaliarik jaso gabeko irteerak, gorpuak biltzea, tranpa kaiolak jartzea… administrazioko kudeaketak barnean daude): ----------3 puntu

7.- Albaitaritza azterketa, barneko eta kanpoko parasitoak kentzea eta garbiketa: - 2 puntu

8.- Txertaketa: ---------- 2 puntu

9.- Mikrotxipa jartzea eta administrazioko izapidea egitea:---3 puntu

10.- Esterilizazioak:

Katu arra----------2 puntu

Katu emea----------2 puntu

Txakur arra----------1 puntu

Txakur emea----------1 puntu

11.- Albaitaritza ikuskaritzak: ----------0.30 puntu

12.- Albaitaritzako txosten ofizialak: ----------0,30 puntu

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 31

13.- Zerbitzu bereziak (birak, ekitaldiak…)----------0.30 puntu

Aurkeztutako eskaintzen balorazio ekonomikoa kasu bakoitzean dagokion BEZa kontuan hartu gabe egingo da.

Pleguetan aipatutako apartatu puntuagarri bakoitzeko gehieneko puntuazioa baliozko proposamen gisa onartzen den eskaintza onenari emango zaio.

Gainerako eskaintzei formula hau aplikatuko zaie:

Oinarrizko puntuazioa = (gehieneko puntuazioa x eskaintzarik onena) / Aztertuko den eskaintza

Lizitatzaileren batek 0 euroko prezioa eskainiko balu unitateko prezioetakoren batean, eskaintza onuragarriena 0,1 eurokoa izango da.

Arestian aipatutako apartatuetako bakoitzean lortutako puntuazioen baturak erabakiko du eskaintza bakoitzaren balorazio ekonomiko osoa. Aurkeztutako eskaintzen balorazio ekonomikoa egingo da kasu bakoitzean egokia den BEZa kontuan hartu gabe.

2.- INGURUMEN- ETA JASANGARRITASUN-BALIOAK Gehienez 7 puntu

- Getxoko zerbitzuetan erabiliko diren ibilgailuen ingurumen-etiketa:
  “Eko” etiketa duen ibilgailua erabiltzea animaliak jasotzeko zerbitzua emateko (hibridoa, hibrido entxufagarria edo gas bidezkoa)..... 2 puntu
  “Zero” etiketa duen ibilgailua erabiltzea animaliak jasotzeko zerbitzua emateko (elektriko bateriaduna)..... 3 puntu
- Europako etiketa ekologikoa (Ekoetiketa) duten garbiketa-produktuak erabiltzea Getxoko animaliek erabiliko dituzten txakurtegietan eta ibilgailuetan..... 2 puntu.
- Energia berriztagarria erabiltzea instalazioetan edo harrera-zentroan.....2 puntu
- Euri-ura berreskuratzeko sistemak edo antzekoak erabiltzea txakurtegiak edo instalazioak garbitzeko.....2 puntu
- Txakurren hondakin organikoen eta hondakin biosanitarioen kudeaketa-plana izatea.....2 puntu

Apartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 7 puntukoa izango da, nahiz eta aurkeztutako agirien arabera lortutako puntuazioa handiagoa izan. Aurkeztutako alderdi guztiak behar bezala justifikatu beharko dira.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 31

IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK, Gehienez 20 PUNTU

Apartatu honetan sartuko dira:

ADOPZIORAKO JARDUKETA PLANA.- Gehienez10 puntu

Honela baloratuko da:

1-10 puntu artean emango dira 7.10 artikuluan jasotakoaren arabera aurkeztu den jarduketaren eraginkortasun-maila baloratzeko. 5 puntura iristen ez diren jarduketak kenduko dira, ondorio urri dituztela joko da eta.

Hala, enpresa lizitatzaileek puntuak eskuratutako dituzte, proposatutako ekintza bakoitzean lortutako puntuak batuta, hain zuzen; betiere, horiei 5 puntu esleitu bazaizkie gutxienez.

Puntu gehien daukan eskaintzari 10 puntu emango zaizkio.

Gainerako eskaintzei formula hau aplikatuko zaie:

Oinarrizko puntuazioa = Gehieneko Puntuazioa x Aztertu beharreko eskaintza/Eskaintzarik onena.

KATU-KOLONIEN KUDEAKETA-PLANA Gehienez 10 puntu

Enpresa lizitatzaileek udalari katu-kolonien kudeaketarekin laguntzeko plan bat aurkeztu beharko dute. Plan horretan, alderdi hauek zehatz-mehatz jaso beharko dira:

- Aipatutako katuak harrapatzeko protokoloak: Harrapaketa-protokoloa, kaiola motak, garraioa...
- Enpresa esleipendunak harrapaketa egin ondoren egingo dituen azterketak eta jarduketak: Belarriko marka (belarri-ebakia), desparasitazioa, txertaketa, gaixotasunen testak...
- Esterilizazio-jarduketak: Harrapaketatik jarduketak egiteko gehieneko epeak eta katua jatorrizko lekura itzuli aurreko ebakuntza osteko protokoloak...
- Katuak harrapatu diren lekura itzultzea.

Halaber, planak jasoko du enpresa esleipendunak udalak katu-koloniak kudeatzeko baimena eman dien pertsonekin izango duen harremana.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 31

INGURUMENEKO ARDURADUN TEKNIKOA

Sin.: JOSU ATEKA ACEBO

Unitateko arduraduna den zinegotziaren oniritzia

Sin.: Carlos Sergio Achotegui

I. ERANSKINA DATUEN BABESAREN DOKUMENTUA

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 31

Anexo II **TRATAMIENTO DE PROTECCION DE DATOS**

DECLARACIÓN RESPONSABLE PARA EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

D./Dña. ....., con D.N.I. ....., en nombre y representación de……..……C.I.F……..como adjudicataria del contrato de (XXXXXXX) de GETXOKO UDALA -AYUNTAMIENTO DE GETXO con número de expediente (especificar expediente), en adelante ENCARGADA DE TRATAMIENTO

EXPONE

Que,_____, (a continuación ENCARGADA DE TRATAMIENTO), como consecuencia de su condición de adjudicataria del contrato de XXXXXXXXXXXXXXXXX mediante contrato suscrito de fecha _____-, tratará datos personales de los que resulta responsable de su tratamiento la Corporación (en adelante RESPONSABLE DE TRATAMIENTO), en particular del Tratamiento "XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX" incorporado al Registro de Actividades del Tratamiento del Ayuntamiento de Getxo.

Y en cumplimiento del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y su normativa de desarrollo,

DECLARA

1.- Que los servidores y los servicios asociados a los mismos que se utilizarán para la ejecución del contrato referenciado en el expediente anteriormente indicado se encuentran en:

UBICACIÓN DE SERVIDORES
Indicar el Domicilio postal donde se encuentren los servidores

2.- Que se compromete expresamente a comunicar cualquier cambio en la ubicación de los servidores y de los servicios que se prestan asociados a los mismos a lo largo de la vida del contrato.

3.- Que asume las siguientes instrucciones que GETXOKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE GETXO le remite, en relación al tratamiento de datos personales y que asume las funciones y obligaciones de ENCARGADA DEL TRATAMIENTO conforme a las siguientes especificaciones:

Colectivos y Datos Tratados

Los colectivos de interesados y Datos Personales tratados a las que puede tener acceso el beneficiario son:

CATEGORÍAS DE PERSONAS INTERESADAS
• PERSONAS EMPLEADAS • PERSONAS INTERESADAS • PERSONAS CIUDADANAS • PERSONAS REPRESENTANTES • PERSONAS CARGOS PÚBLICOS
DATOS PERSONALES DEL TRATAMIENTO A LOS QUE SE PUEDE ACCEDER
• NOMBRE • APELLIDOS • CORREO ELECTRÓNICO • TELEFONO • FOTOGRAFÍA

Procedimientos o sistemas de tratamiento:

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 31

X Automatizado (Total o parcial)
X No automatizado (manual)

Elementos/operaciones del tratamiento
El tratamiento de los Datos Personales comprenderá:

• Recogida (captura de datos)
• Conservación

Destino de los datos: La entidad que resulte adjudicataria se obliga a devolver a GETXOKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE GETXO los datos personales y, en su caso, los soportes donde consten, una vez cumplida la prestación. La devolución debe comportar el borrado total de los datos existentes en los equipos informáticos utilizados por la entidad que resulte adjudicataria.
Medidas de seguridad

Las medidas de seguridad a implantar, serán las establecidas en el artículo 32 del RGPD UE 2016/679 del Parlamento europeo, y en particular las que resulten necesarias para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos, de acuerdo con las instrucciones y criterios de seguridad de GETXOKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE GETXO. Todo ello de conformidad con las previstas en el Anexo II (Medidas de seguridad) del Real Decreto 311/2022, de 3 mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad.

Modificación del Anexo.- En caso de que como consecuencia de la ejecución del contrato resultara necesario en algún momento la modificación de lo estipulado en este Anexo, el adjudicatario lo requerirá razonadamente y señalará los cambios que solicita. En caso de que el Ayuntamiento de Getxo estuviese de acuerdo con lo solicitado, el Ayuntamiento de Getxo emitiría un Anexo actualizado, de modo que el mismo siempre recoja fielmente el detalle del tratamiento.

En Getxo a de de 2025

Firmado: D. XXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ERANSKINA: DATUEN BABESA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO ERANTZUKIZUNAREN AITORPENA.

Getxoko udaleko idatzi administratiboak itzultzeko eta zuzentzeko esleipena jaso duen enpresa::……..(NIF zk ……..).

Kontratuaren **espediente** zenbakia:…….

Datu pertsonalen **tratamendurako pertsona arduraduna**: ……jauna/Andrea NA zk: ……..

ADIERAZTEN DUT:

1.- Aurreko espedientean aipatutako kontratua gauzatzeko erabiliko diren zerbitzariak eta horiei lotutako zerbitzuak Getxoko udalaren jabetzakoak direla

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 31

ZERBITZARIEN KOKAPENA

2.- Nire gain hartzen ditut GETXOKO UDALAk datu pertsonalen tratamenduari buruz bidaltzen dizkidan jarraibide hauek, eta nere gain hartzen ditut TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN eginkizunak eta betebeharrak, honako zehaztapen hauen arabera:

"DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA"

Taldeak eta tratatzen diren datuak

Tratamendu-eragileak tratatzeko erabil ditzakeen interesdunen taldeak eta datu pertsonalak honako hauek dira:

PERTSONA INTERESDUNEN KATEGORIA
• HERRITARRAK • INTERESDUNAK • LIB. LEGEZKO ORDEZKARIAK • ENPLEGUA ESKATZEN DUTEN PERTSONAK • KARGU PUBLIKOAK DITUZTEN PERTSONAK

Tratatutako datuak:

Erakunde esleipendunak honako informazio pertsonal hau tratatu ahal izango du:

Eskura daitezkeen tratamenduaren datu pertsonalak
• NAN/IFZ/AIZ/PASAPORTE-ZENBAKIA • IZENA • ABIZENAK • POSTA ELEKTRONIKOA • ARGAZKIA

Tratamendu-prozedurak edo -sistemak:

[X] Automatizatua (osoa edo partziala)

[X] Ez automatizatua

Tratamenduaren elementuak

TRATAMENDU-ERAGIKETAK
• Jasotzea (Datuak hartzea) • Kontserbazioa (biltegiratzea)

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 31

Datuen xedea: esleipena lortzen duen entitateak GETXOKO UDALA-UDALAri itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, horiek dauden euskarriak, prestazioa bete ondoren.

Segurtasun-neurriak: ezarri beharreko segurtasun-neurriak GETXOKO UDALA - Ayuntamiento DE GETXOren Segurtasun Politikan jasota daudenetatik beharrezkoak direnak izango dira, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean (segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin bat etorriz.

Eranskina aldatzea.- Kontratua gauzatzearen ondorioz, eranskin honetan ezarritakoa aldatu behar izanez gero, esleipendunak arrazoiz eskatuko du, eta eskatzen dituen aldaketak adieraziko ditu. Getxoko Udala eskatutakoarekin ados egongo balitz, Getxoko Udalak eranskin eguneratu bat egingo luke, eta bertan tratamenduaren xehetasunak zehatz-mehatz jasoko lirateke.

Baliozkotze Kod.: 37WSNE4H2CQZJ7GZ5QS9CRR44
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 31